

UROLA-KOSTA / Liburuaren Egunarekin bat egingo dute gaur zenbait herritan

Migel Cervantes, William Sheakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleak hil ziren eguna gogoratuko da gaur

A. LARRAÑAGA

Gaur Liburuaren Eguna ospatuko da mundu osoan zehar Migel Cervantes Saavedra, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleak hil ziren eguna gogoratuz. Hori dela eta, eskualdean ere zenbait herritan ekimenak antolatu dituzte egun horrekin bat eginez.

Liburu bilketa

Liburuaren Egunaren inguruan ELAN-Euskadi, Hegolan eta Saharautz gobernuz kanpoko erakundeak aurten ere liburu bilketa egiten ari dira apirilean zehar. Beraz, liburuak, CDak, VHSak eta DVDak eman nahi dituzten herritarrek horretarako aukera izango dute San Enean liburutegian.

Literatur lehiaketak

Bestetik, Liburuaren Eguna aprobetxatuko dute Getariako eta Zarauzko Udalek, eta gaur arratsaldean, herri bakoitzeko literatur lehiaketetako irabazleei sariak banatuko dizkiete.

Egitaraua

GETARIA

Apirilaren 23a, gaur. 18:30ean, Getariako VIII Literatur Lehiaketako sariak banatuko dira udaletxeko areto nagusian.

Apirilaren 24a, bihar. 18:00etan, Miriam Mendoza ipuin kontalariak ipuina kontatuko du Alondegian, 4 urtetik gorako haurrentzat.

ZARAUZ

Apirilaren 23a, gaur. - Haurrentzat: 17:30ean, Pello Añorgak 6-7 urte bitarteko haurrentzat ipuina kontatuko du San Enean.

- Egunean zehar libururen bat mailegatzten duten haurren artean ipuinak zozkatuko dira. - Helduentzat: 19:30ean XXVI Lizardi Literatur Lehiaketako sariak banatuko dira.

- Egunean zehar helduen liburutegian, Zarauzko Udalak argitaratu duen Anjel Lertxundi eta Jose Antonio Legorbururen Tresnak eta kordelak liburua banatuko da.

ZUMAI

Apirilaren 23a, gaur. - 17:30ean, Zumaiko Udal liburutegian Apika taldeak Ipuin Kutxa saioa egingo du haurrentzat